



Maïté Lafourcade

Paueko Unibertsitateko irakasle emeritua

Maïté Lafourcade, Zuzenbidearen eta Instituzioen Historiako katedraduna da Paueko Unibertsitatean, eta Eusko Ikaskuntzako Zuzenbide Saileko bazkide aktiboa. Nagusiki Baionako Fakultate Pluridiziplinarrean aritu da lanean, harik eta erretiroa hartu duen arte. Euskal Ikasketen Zentroa sortu zuen bertan, zeinaren bitartez euskal instituzio juridikoei buruzko jardunaldi ugari antolatu eta zuzendu baitituen. Bere doktore tesian, Lapurdin Luis XVI.aren garaian egiten ziren ezkontza kontratuak izan zituen aztergai, eta, geroztik, Ipar Euskal Herriko Zuzenbide osora zabaldu du bere ikerketa esparrua.

1.

Nola hasi zinen Euskal Zuzenbidea iker-tzen?

Praktika profesionalean aro bat itxi ostean sartu nintzen ikerketaren munduan. Tesiaren zuzendariak bideratu ninduen unibertsitatara. Parisen egin nituen Zuzenbide ikasketak, hiru urtez. Nire aitak behin eta berriro esaten zidan tesi bat egiteko. Merkataria zen bera, eta bi denda zeuzkan Baionan: janari bereziarena bata, eta portzelana eta kristalena bestea. Lagun zuen Bordelen Zuzenbidearen Historia irakasten zuen Etienne Dravasaren aitaginarreba, eta niri buruz mintzatu zitzaien behin. Telefonoz hots egin zidan, eta horrelaxe sartu nintzen ikerketaren munduan. Goi ikasketen bi diploma neuzkan: Zuzenbide pribatukoa bata, eta Zuzenbidearen Historiakoa bestea, baina ez neukan oso argi tesian zein gai landu. Baionan nintzenez, Euskal Herriarekin lotutako gairen bat hautatu nahi nuen,

bertokoa. Beraz, Euskal Zuzenbideari buruzko liburuak irakurtzen hasi nintzen. Frantzia, baina, ez zen gauza handirik; XX. mendearen hasierako eta XIX.aren amaierako tesi gutxi batzuk baino ez. Dravasa irakasleak Euskal Zuzenbide Publikoari buruz egin zuen bere tesia, *Les privileges des Basques de Labourd* ("Lapurdiko euskaldunen pribilegioak") izenburupean. Hego Euskal Herriko hainbat egileren liburuak irakurri nituen: Bonifacio Etxegaray, Jesús Galíndez, Manuel de Irujo, Adrián Celaya Ibarra... Nire harridurarako, oso Zuzenbide berezia topatu nuen; ez zeukan unibertsitatean ikasi nuenarekin inolako zerikusirik. Guztiz interesgarria iruditu zitzaidan. Eta horrela aurkitu nuen nire tesirako gaia, Ipar Euskal Herrian nehork ez baitzuen ezagutzen Euskal Zuzenbidea.

2.

Zure doktore tesian, Lapurdin Luis XVI.aren erregetzapean ospatutako ezkontzen kontratuak izan zenituen aztergai

Nire irakurgaietan ikusi nuen etxea zela gauza ororen artean garrantzitsuena, eta oinordeko bakar bat izaten zela. Hori guztia ikertzeko, notarioen artxiboetara jotzea erabaki nuen, aldi hartan oso ohikoa ez bazen ere. Eta ikusi nuen euskaldunen bizitza juridikoan ezkontza kontratua zela gauzarik garrantzitsuena. Orduan, horiek aztertzeke proposamena luzatu nion Dravasari, eta honek baietz erantzun zidan, aurrera egiteko. Edonola ere, esparrua hain zen zabala, aukeraketa bat egin beharra neukala. Ulertzekoa denez, Lapurdi hautatu nuen. Nire asmoa XVIII. mende osoa aztertzea zen, baina ezin nuen halakorik egin, aldi hartan 81 notario baitziren Lapurdin. Hortaz, Antzinako Erregimeneko azken hamabortz urteak aukeratu nituen, eta xehetasun osoz egin nuen ikerketa: Lapurdiko 36 notariok 1774 eta 1789 artean (hamabortz urtez) idatzitako 1.479 ezkontza kontratu aztertu nituen. Guztira 1.450 orrialde osatu nituen, hiru liburuki, *Les contrats de mariage du pays de Labourd sous le règne de Louis XVI (Étude juridique et sociologique)* izenburupean. Argitara emateko, baina, laburtu egin behar izan nuen¹. Bada, horrelaxe sartu nintzen Euskal Zuzenbidean, liburuei eta, batez ere, notarioen artxiboetan guztiz gauza berria topatu nuelako.

“ Nire irakurgaietan ikusi nuen etxea zela gauza ororen artean garrantzitsuena, eta oinordeko bakar bat izaten zela ”



3.

Zein ondorio atera zenituen lehen ikerketa lan hartatik?

Lehenik eta behin, arau guztiek sendiaren ondarea babestea zutela xede. Horixe zen Euskal Zuzenbidearen helburu nagusia. Euskaldunek, 1789an, beren antzinako ohitura idatziak aplikatzen zituzten beti, salbuespenik gabe. Frantzia hegoaldeko ezkontza erregimena, esaterako, erromatarra zen, ezkonsarian oinarritua. Euskal Herrian idatzitako ohituren testua ere ezkonsari erregimenaz mintzo zen, baina, gaia sakontzen hasi nintzenean, euskal ezkontza erregimena oso berezia zela ikusi nuen, eta ez zeukala erromatarraren antzik. Lapurdiko ohitura idatziz jarri zutenek, ezkonsariak mintzatzean, “ezkonsari” hitza erabiltzen zuten ezkontzen zenak, oinordekoa izan edo ez, egiten zuen ekarpena izendatzeko. XIX eta XX. mendeetan Euskal Zuzenbidea aplikatzen jarraitzen zuten, eta ez Napoleonen 1804ko Kode Zibila. Herri bat ezagutzeko, ez da testu ofizialekin kontentatu behar; notarioen idatziak ere aztertu behar dira.

4.

Zuzenbide idatziaren eta eguneroko praktikaren artean eten bat zegoela irizten duzu beraz?

Lapurdin ohiturak idazteaz arduratu zen Batzarra, Erregearen bi komisariok zuzentzen zuten, Bordeleko Parlamentuko magistratuen artean hautatuak. Parlamentu hori oso erromanista zen; Zuzenbide erromatarra aplikatzen zuen beti. Horregatik, Zuzenbide erromatarreko terminologia erabili zuten ohiturak idaztean, baina termino horien atzean zeuden instituzioak ez ziren erromatarrak, inondik inora. Lapurdiko ohiturei buruzko testua irakurtzen duenak inpresio okerrak har ditzake. Praktika bera aztertu beharra dago, hortxe ikus baitaiteke zein Zuzenbide aplikatzen zuten benetan.

Garbi ikusi nuen hori ez zela ezkonsariaren erromatar erregimena. Hasteko, baserri bateko oinordekoarekin –emakumezko zein gizonezkoa– ezkontzen zena, gizon edo emakumea izan zitekeelako; hori ez zen batere erromatarra. Halaber, ikusi nuen gizon eta emakumeek eskubide berberak zeuzkatela, eta hori ere ez zen erromatarra. Ezkontide gazteak etxean bizitzen jartzen zirenean, oinordekoaren gurasoei ematen zitzaizen ezkonsaria. Gainera, ez zen inolako *patria potestas* edo guraso aginterik. Oinordekoaren gurasoek sendiaren ondare osoa transmititzen zion bikote gazteari, eta eurentzat

1. LAFOURCADE, Maïté. *Mariages en Labourd sous l'Ancien Régime*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1989.



“ Arau guztiek sendiaren ondarea babestea zuten xede. Horixe zen Euskal Zuzenbidearen helburu nagusia ”

“usufruktua” gordetzen zuten. Ohiturak “usufruktu” hitza jasotzen duen arren, berez ez zen usufruktua, eta praktikan ere ez zuten termino hori erabiltzen. Usufruktua kontzepzio erromatar bat da. Euskal Zuzenbidean, gurasoek ondarearen erdiaren gaineko administrazio eta gozamina gordetzen zuten. Bikote gazteak eta gurasoek eskubide berberak zeuzkaten, eta baita aiton-amonek ere. Beren sexu edo izaera (ezkonsariko edo oinordetzakoa) edozein izanda ere, eskubide berdin-berdinak zeuzkaten denek. Hori ez zen inolaz ere erromatarra.

Jurista frantses batzuen liburuetan irakurri nuen euskaldunek ezkonsari sistemari jarraitzen ziotela. Oker zeuden, ordea. Izendapen hori kanpotik ekarria zen, euskaldunen erregimena oso berezia baitzen. Bestalde, ikusi nuen Baionak euskal jatorria zuela, 1273ko ohitura zaharretan jasotzen baita ezkontideen arteko erkidegoa lehen haurraren lehen negarrarekin batera sortzen dela. Izan ere, Euskal Herriko ezkontza kontratuetan esaten zen ezkontza desegitean –ezkontideetako bat hildakoan, noski, dibortziorik ez baitzen–, edota seme-alabarik ez izatean, edota, izan arren, hil egiten bazen, ezkonsaria itzuli egingo zitzaiola dela bizirik gelditutako ezkontideari, baldin eta hildakoa oinordekoa bazen –eta, une horretan, ezkontideak etxea utzi beharko zuen, seme-alabarik ez izatean eskubide guztiak galtzen baitzituen–, dela ezkonsaria emandako ezkontidearen etxeko ordezkariari. Ezkonsaria, beraz, itzulgarria zen. Seme-alabarik izanez gero, baina, ezkonsaria ekarri zuen ezkontidea, bere ezkonsariarekin batera, oinordekoaren sendiaren ondasunen erkidegoan integratzen zen. Hortik ondorio bat atera nuen: erkidegoa, seme-alabak izatean sortzen zen; haurrik izaten ez bazuten, ezkonsaria itzuli egiten zen. Iparraldean, seme-alabak izan baino lehen, ondasunen banaketaren erregimena izaten zuten ezkontideek, eta, haurrak izandakoan, erkidego unibertsala.

5.

Lapurdin Antzinako Erregimenean oinordetza eta jabetza transmititzeko ziren sistemak ere aztertu dituzu. Nola transmititzen zuten garai hartan sendiaren ondarea, eta baserria bereziki?

Oinordekoa lehendabiziko seme-alaba izaten zen beti, neska edo mutila izan. Nahitaez. Baldin eta etxearen interesak besterik eskatzen ez baldin bazuen; adibidez, lehen seme-alaba atzeratua baldin bazen, edo elbarria, edota ez baldin bazeukan ezkontzeko asmorik, eta abar. Kasuotan, bigarren seme-alaba izendatzen zen oinordeko. Zuberoako eta Baxenabarreko ordokietako nobleen ondasun eta etxe askeetan sartua zen gizentasunaren pribilegioa.

Oso gutxitan egiten zen testamentua. Edonola ere, baserria ez zen testamentu bidez transmititzen, oinordekoa ezkontzen zen anean baizik. Ezkonsaria ekartzen zuen bikote gazteari ematen zioten gurasoek sendiaren ondarea. Ohiturazko arau inperatiboa zen, derrigorrezkoa. Jabekidetzak sortzen zen horrela; hots, eskubide berberak zeuzkaten gurasoek eta bikote gazteak.

Bestalde, gurasoek oinordekoaren ezkontzari ipinitako aurkaritza edo eragozpen ugari topatu nituen ezkontza kontratuetan; esaterako, ezkonsaria eskasa zenean, eta abar. Horrelako kasuetan, gazteek ezkontzearen itxura egiten zuten. Ohaidetzan bizi ziren, gurasoen etxean, baina ez zen jabekidetzarik sortzen; beraz, gurasoek gordetzen zuten agintaritza, gurasoek kontrolatzen zuten ondarea. Zenbaitetan ez zuten oinordekoa ezkontzerik nahi, hori eginez gero beren eskubideen erdiak galduko lituzketelako. Baina bikote gazteak, bien bitartean, seme-alabak izaten zituen, sasikumeak noski. Haur ez-legitimo asko zegoen garai hartan. Frantzian, sasikumeak ez ziren %1 edo 2 baino gehiago izango, baina hemen %25etik gora ziren. Euskal Museoa liburu txiki interesgarri bat topatu nuen behin: Itsasoko Harambillet apaizaren liburua. Bikote gazteek beregana jotzen zuten “maitasunaren ezkontza horniekin”; hots, zapiekin eta antzeko gauza txikiekin. Euskaldunek ez zuten Trentoko Kontzilioa onartu, zeinak, ezkondu ahal izateko, bedeinkapena jasotzera derrigortzen baitzuen. Hemen, baina, bikote gazteek elkarri ematen zioten sakramentua, eta, apaiz baten aurrean egiten zutenez, eta ezkontza horniak trukatzeko zuztenez, baliozkotzat jotzen zuten ezkontza. Gurasoek, zahartutakoan, edota oinordekoaren bikotearekin ondo moldatzen zirela ikustean, ezkontzeko onspena ematen zuten, eta orduan ofizialki ezkontzen ziren. Ordura arteko izandako seme-alabak legitimo bihurtzen ziren. Horregatik guztiatik ez zuten testamenturik egiten. Edo, egitekotan, oso gutxitan, eta irabazpidezko ondasunei buruz bakarrik.

6.

Zenbateko garrantzia zeukan emakumeak Iparraldean Antzinako Erregimenean, dela sendiaren baitan, dela arlo publikoan?

Gizon eta emakumeek eskubide berberak zeuzkaten. Frantzia guztian, berriz, emakume ezkondua ezgaitzat jotzen zen, eta printzipio hau XX. mendera arte luzatu da. Euskal Zuzenbidean, gainera, emakumearen borondatea senarrarenari gainjartzen zitzaion kasu batzuetan; adibidez, emakumea oinordekoa izanik, seme-alaba baten ezkontzari onespina emateko orduan. Iparraldean, emakumea ez zegoen ezgaituta, eta irabazpidezko ondasunez xedatzeko eskubidea zeukan, Frantziako Zuzenbide komunean emakumeak egindako ekintzak deusezak ziren bitartean. Hemen ez ziren deusezak, baina senarra hil arte itxaron beharra zegoen baliozko bihurtzeko. Edonola ere, baziren hiru kasu non emakumeak bere kabuz kontrata zezakeen: merkataria izanik bere saltokiko beharrei erantzun behar zienean; seme-alabak elikatu beharra zegoenean; eta ezkontideei emaniko ondasunak kontserbatzeko. Hiru kasu hauetan, senarraren baimenik gabe egin zitzakeen kontratuak.

7.

Poumaredede edo Ourliac bezalako ikertzaileek Pirinioetako herrialdeetako Zuzenbideen erroei buruz dituzten ikuspuntuei zer irizten diezu?

Ez nago tesi horrekin ados. Nire ustez, Pirinioetan, jatorrian, bazen herrialde bat, toponomiak ondo erakusten digun bezala hizkuntza bera erabiltzen zuena. Gure arbasoak Pirinio guztietan zehar barreiatuta zeuden. Ikuspuntu juridikotik, eta nire iritzian betiere, hipotesi pertsonal bat baita, Zuzenbide erromatarra berpiztearekin batera hasi zen ohiturazko Zuzenbidea gainbehera egiten, XII. mendetik aurrera, eta batez ere XVI.az geroztik. Zuzenbide erromatarra Proventzan hasi zen zabaltzen, Bolognatik Montpelliterrera, eta Piamontetik mendialdera.

Zuzenbidea ez zen leku guztietan berdin erromanizatu; eskualde batzuetan gehiago, eta besteetan gutxiago. Baina euskaldunek uko egin zioten erromanizazioari. Hizkuntzak berak izango zuen zerikusirik. Gainera, ez zuten Zuzenbide erromatarra ezagutzen. Hori da nire ustea. Oso egoera garbian mantendu zuten ohitura, Zuzenbide arkaikoa zeukaten-eta. Aspaldikoak dira lurraren gaineko jabetza zatitu gabea, eta gizartea boterea existitzen ez zen garaietan bezala antolatzeak ohitura. Euskal Zuzenbidea, Zuzenbide erromatarraren antipodetan zegoen beraz.

8.

Ipar Euskal Herrian jabetza eskubidearen gaineko ikuskera partikular bat dagoela adierazi duzu hainbat artikulutan. Zertan datza berezitasun hori? Zein ezberdintasun dauzka Zuzenbide idatzia daukaten herrialdeekiko?

Ipar Euskal Herrian, jabetza komun eta zatiezina zen. Gure arbasoen ekonomia artzaintzan oinarritzen zen, eta jabetzaren gaineko ikuskera primitiboa zeukaten. Gero, lur batzuetan finkatu eta etxeak eraiki zituztenean, lurrak eta etxea ez ziren pertsona bakar baten jabetzakoak, sendi osoarenak baizik. Horregatik, besterenezina zen sendiaren ondarea; ezin zuten saldu, premiazko beharren bat sortzean jabetzaren guztiek saltzeko baimena ematen zutenean salbu. Eta, zoritxarrez, sendiaren ondasunak –etxea batez ere– saldu behar izanez gero, beti zeukaten oinordekoaren bitartez edo zenbait belaunaldi geroago berreskuratzeko aukera.

Bi ondasun mota bereizi behar ziren: onibarrak (hots, familiak bi belaunaldi lehenagotik zeuzkan ondasunak), eta irabazpidezko ondasunak. Ezin zuten onibarrez xedatu. Ondasunen arteko bereizketa hau, euskal Zuzenbidearen berezitasuna dugu. Zuzenbide erromatarrean eta frantsesean ez zuten horrelako bereizketarik egiten; haiek ondasun higigarri eta higiezinak bereizten zituzten. Hemen, ordea, irabazpidezko ondasunak eta onibarrak zeuzkaten, higigarri edo higiezinak izan.

9.

Bizkaiko Zuzenbidearen antzik hartu a diozu?

Bai horixe. Tesia prestatzen ari nintzenean, Adrián Celayaren adiskide egin nintzen. Eta orduantxe ikusi nuen zeinen berdintsuak diren bi Zuzenbideak. Bi lurraldeen artean tarte handi bat dagoen arren, zibilizazio berbera zeukatela ikusi nuen, gizarte berbera. Ezberdintasun gutxi batzuk badauzkate, testamentuari eta transmisioari dagokienez batez ere. Hemen XVI. mendean idatzi ziren ohiturak, eta Bizkaian askoz ere lehenago, 1452an. Zer pentsatu behar dugu orduan, hemen, ohiturak idatzi baino lehen, Hego Euskal Herriko ohitura berberak zeuzkatela? Ez dakit bada. Ezetz esango nuke nik, testamentuaren jatorria erromatarra da-eta. Gurasoek testamentuaren bidez mantentzen zeketen beren agintea.

“ Iparraldean, seme-alabak izan baino lehen, ondasunen banaketaren erregimena izaten zuten ezkontideek, eta, haurrak izandakoan, erkidego unibertsala ”

10.

Eta Ipar eta Hego Euskal Herriko Biltzar Probintzialen artean, antzekotasunik ba al dago?

Ez dut uste Hego Euskal Herrian gizartearen antolaketa zatikatua ezagutzen zutenik. Bai ordea Nafarroan. Lapurdin unitate bakar bat zegoen. Guztira 35 parrokia zeuden bertan, eta hauetako bakoitzak ordezkari bat bidaltzen zuen Biltzarrera, agindu batekin. Sindikoak galderak egiten zizkion, eta bere zalantzei erantzuten. Hurrengo igandean, parroketako ordezkariak jauntxoekin biltzen ziren, meza bukatutakoan, eta beren galderei erantzuten zieten. Erantzun hauek, handik zortzi egunera biltzen zen Biltzarraren bigarren saiora eramaten zituzten. Apaiz eta nobleek debekatuta zeukaten Biltzarrera joatea. Erabakiak parrokien gehiengoz hartzen zituzten.

11.

Iparraldeko Euskal Zuzenbidearen bilakaeran, une erabakigarri bat izan zen: Iraultza Frantsesari dagokiona, hain zuzen ere. Garai hartan, adibidez, Antoine d'Abbadiek gutun bat bidali zion Napoleon III.a enperadoreari, Kode Zibilak Euskal Herriko berezko instituzioak errespetatu zitzala erregutuz. Zer gertatu zen ohiturazko euskal Zuzenbidearekin Iraultza amaitu ondoren?

Iraultzaileak idealistak ziren, dogmatikoak. Antzinako Erregimenak kultur aniztasun handiegia zuela irizten zuten, eta Frantziak batasuna behar zuela. Horretarako, baina, probintziak desegin eta Frantzia departamentutan banatu beharra zeukaten, ahalik eta anonimoenak bihur zitezen.

Iraultza Frantsesaren garaian, 1789ko Estatu Nagusien kexen koadernoak jasotzen zutenaren arabera, lapurtarrak oso pozik zeuden euren erregimenarekin, eta ez zuten aldatu nahi. Mantendu egin nahi zituzten beren instituzioak. Hemendik at, ordea, kontrakoa gertatzen zen. Garat anaiak izendatu zituzten Asanbladarako ordezkari diputatu. Ustaritzekoak ziren jaiotzez, euskaldunak, baina bat Parisen bizi zen, eta bestea Bordelen. Masoiak ziren. Bada, Asanbladan pribilegioak deuseztatzeko bozketa egin zenean, Garat anaiak deuseztatzearen alde bozkatu zuten. Horrek, noski, euskal instituzioak desagertzea suposatzen zuen. Eta albistea hona iritsi zenean, iskanbila handia sortu zen. Lapurtarrek, Asanblada Nazionalera bidalitako gutun baten bidez, arbuia egin zituzten Garat anaiak. Petrifikatuta egotea leporatu zieten. Eta, beren herrikideak defendatzera itzuli zirenean, frantses txarrak zirela aurpegiratu zieten. Euskaldunek Asanbladara hainbat erregru zuzendu zituzten arren, ez zuten deus ere lortu. Frantzia departamentuetan banatuko zutela adierazi zutenean, hiru probintziak euskal departamentu batean biltzeko eskatu zuten. Baina iraultzaileek probintziak desegitea zuten xede. Britainia hainbat departamentutan banatu zuten, eta Euskal Herria, txikiegia zenez, Biarnori atxiki zioten, bien artean departamentu bat osatzeko. Eta euskaldunek eskaera gehiegi egiten zituztela ikusita, departamentuko hiriburua Pauen kokatzea erabaki zuten, Baiona aldi hartan Paue baino askoz ere hiri garrantzitsuagoa zen arren.

Iraultzarekin bat egin zuten lehenendabizikoak baxenabartarrak izan ziren, beren noblezia gainbehera egiten hasi zela ikusi zutelako, eta baita zuberotarrak ere, 1730ean galdu egin zituztelako beren instituzioak. Hauek guztiek onartu egin zuten Iraultza. Baina Lapurdikoek ez.

1794ko otsaileko Ventôse Legeko 7. artikulua irdargabetu egin zituen tokiko ohitura guztiak, eta frantses guztientzat lege berberak ezarri zituen. Euskal Zuzenbideak, baina, bizirik iraun zuen, bai euskaldunek beren ohiturak aplikatzen jarraitu zutelako, baserria seme-alaba bakar bati utziz, bai notarioen trebeziari esker. Horregatik gorde ditu Euskal Zuzenbideak familiaren ondarea kontserbatzeko ohitura, eta onibarren gaineko jabetza zatitu gabea.

12.

Hamar urte baino gehiagoz, eta erretiroa hartu bitartean, Paueko Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroa zuzendu duzu. Nork hartuko du zure lekukoa? Eta orokorrean, nola dakusazu Euskal Zuzenbidearen geroa Frantzian?

Nik neuk sortu nuen Euskal Ikasketen Zentroa, 1994an, edo lehenago agian. Hasieran Adrián

Celaya, Juan Churruca eta Gregorio Monreal ekarri nituen, Fakultateko dekanoarekin, Henry Labayle jaunarekin, bildu eta Hezkuntza Ministeriora ikerketa zentro bat sortzeko eskaria zuzentzeko. 1992an, mahai-inguru bat antolatu nuen, Espainiako juduek Baionara egindako exodoari buruz, eta 1994an Euskal Herriko Ohiturazko Zuzenbidearen egungo praktikari buruzko beste bat.

Coro Cillán andrearekin batera, talde bat osatu genuen. Oso jende interesgarria bildu zuen, lan aparta egin zuena: Adrián Celaya, José M^a Aycart, Jesús M^a Sanza, Uriarte, Salinas Quijada. Hemen, berriz, Etcheverry, Goufrand, Michel Richer eta ni neu geunden. Aldi hartan, 1994an, Euskal Zuzenbideak bazuen aplikaziorik Baigorri eta Zuberoa aldean. Gregorio Monrealek, artean Eusko Ikaskuntzako presidente zela, argitaratu egin zuen. Bestetik, Gregorio Monrealen mandatualdian etorri zen Eusko Ikaskuntza Baionara, zorionez.

Familia Zuzenbidea aztertu genuen batik bat. Bordele eta Paueko espezialistak bildu ziren Fakultatean. Coro Cillánek ere oso talde ona osatu zuen Hego Euskal Herrian, Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoako adituak bilduta. Norbaiti lan bat enkargatzeko asmoa geneukan, baina ezin izan genuen halakorik egin, ez geneukalako ordaintzeko modurik. Eusko Ikaskuntzari esker, baina, Euskal Ikasketen Zentroak laguntza ederra jaso zuen.

Familia aztertu ondoren, Euskal Zuzenbidearen beste ezaugarri nagusia aztertzea erabaki genuen; hots, jabetza. Baina Baionako Fakultatean nehork ez zidanez erantzunik ematen, apur bat aldatu egin nuen gaia, horrela norbaiti interesatuko zitzaiolekoan, eta horrela ipini nuen: jabetza eta espazioen antolakuntza gaur egungo problematikan. Bada, ezta ere. Bordeleko Unibertsitateko presidentea laguna dut, eta galdegin nion ezagutzen ote zuen niri

laguntzeko prest legokeen nehor. Eta euskaldun bat aurkitu zidan! Euskal Herrian egona ez zen arren, euskaldunak zituen aitona-amonak. Alexandre Zabalza du izena. Nire asmoak azaldu nizkion bezain laster, prest azaldu zen. Bilera guztietara etorri da, bi mahai-ingurutan hartu du parte... Oso interesatuta dago. Zuzenbide Zibileko eta Zuzenbidearen Filosofiako irakaslea da.

Bestalde, oso bakarrik sentitzen nintzenez –apur bat desanimatuta nago–, diru-laguntzak eskatu genizkion Eskualdeko Kontseiluari eta Kontseilu Orokorrari. Orain, erretiratuta nagoenez, ezin dut Ministeriora jo. Eta zer egin dute? Bada, Euskal Ikasketen Zentroa Iker erakundearekin bategin. Izan ere, orain ikerketa zentroak bateratzeko joera nagusitu da Frantzian, txiki sakabanatuak eduki beharrean ikerketa zentro handiak izateko. Iker, euskal hizkuntza eta literaturaz arduratzen da, eta bertan, besteak beste, Beñat Oihartzabal, Aurelia Arkotxa eta Xarles Bidegain ari dira lanean. Baina ez dauka nire lanarekin zerikusirik. Iker CNRSko zentro bat da, ez Paueko Unibertsitatekoa. Ez nuen diru-laguntza bat bera ere jaso, ez Ministeriotik, ez Unibertsitatetik. Eskualdeko Kontseiluaren erantzunaren zain nago. Baiezkkoa emanez gero, beste lantalde bat osatu eta lanari ekingo diot. Ezezkoan, ez dakit zer egingen dudan.

Azken orduan, uda Euskal Herrian igarotzeko ohitura zeukan Zuzenbidearen Historian katedradun bat etorri zen Baionako Unibertsitatera, eta prest agertu zen Euskal Ikasketen Zentroko nire lanari jarraipena emateko. Yan Delbrel du izena. Oso albiste ona dugu.

Elkarrizketatzaileak: Itziar Alkorta
Koro Garmendia

Itzultzailea: Koro Garmendia